

HABANAKO NAZIOARTEKO AZOKA, FIHAV '2022

Datak: 2022ko azaroaren 14tik 18ra

ANTOLAKETA

Eusko Ganberek, EUSKADIKO NAZIOARTEKOTZE AGENTZIA: BASQUE TRADE & INVESTMENT–ekin lankidetzan, euskal enpresak gonbidatzen ditugu Habana-Kubako Nazioarteko Azokaren XXXVIII. edizioko Euskal Pabiloian parte hartzera (FIHAV, 2022), 2022ko azaroaren 14tik 18ra.

Pandemiaren ondorioz, promozio- eta merkataritza-jarduerak ia mundu osoan etenda egon diren bi urteren ondoren, Habanako Nazioarteko Azokak, herrialde horretan egiten den enpresa-azokarik garrantzitsuenak bere ateak irekiko ditu berriro.

Sektore anitzekoa da, eta Kubako merkaturian ezagutarazteko aukerarik onena da, Euskadik Kariben duen bazkide komertzial nagusia baita, eta Latinoamerikako handienetako bat.

2021ean, Euskal Autonomia Erkidegoko esportazioak Kubara 83,4 milioi eurokoak izan ziren, eta horrek berretsi egiten du 2018tik aurrera egiten ari den jaitsiera, Kubak bizi duen krisi ekonomikoaren ondorioz, COVID delakoaren eraginak areagotuta. Nolanahi ere, euskal enpresen presentzia handia da Kuban, eta esportazio guztien % 14 inguru dira Espainian.

Finantza-arazoak etengabeak izan dira azken urteotan, eta horrek esportatzaileari eskatzen dio aurkezten diren eragiketak eta bermeak aztertzea. Kubatarrak inbertsio-proiektuak bultzatzen ari dira, eta, horretarako, Kubako agintariek urtero eguneratzen dituzten aukeren katalogo bat aurkezten dute. Proiektu horietan COFIDESen finantzaketaren bat lortzeko aukera egon daiteke.

Esparru horretan, euskal enpresen partaidetza bateratua antolatuko da azokan, Expo-Cuba azoka-esparruan. Bertan, 9. pabiloia jarriko dugu euskal enpresen eskura, kubatarren artean “Pabellón Vasco” izenez ezagutzen dena.

EUSKO GANBEREK PARTAIDETZAN BATERATUAN EMATEN DUTEN ZERBITZUA

1.- Azokan parte hartzearekin zerikusia duten antolamendu-alderdi guztiak koordinatzea, zerbitzu integralaren filosofiaren barruan: dekorazioa, espazioak eta zerbitzuak kontratatzea. Beraz, zure enpresak esleitzen zaion eremuan instalatu instalatu baino ez du beharko.

2.- Bilera eta konferentzien arloa koordinatzea. Bilera-guneak ahalik eta eraginkortasunik handienarekin erabiliko direla bermatzeko, Bazkundeko pertsona batek koordinatuko du.

3.- Eusko Ganberak enpresen partaidetza bateratuaren hedapenaz arduratuko dira , eta honako ekintzak egingo dituzte:

- Euskal partaidetza bateratua osatzen duten enpresen katalogo espezifikoa argitaratzea.
- Partaidetza bateratua azokaren katalogoan publizitatea txertatzea.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

• Espazioa, dekorazioa, gonbidapenak eta kredentzialak

Enpresa bakoitzak behar duen erakusketa-espazioa eskatu ahal izango du, eta kontratatu beharreko gutxieneko espazioa 12 metro koadrokoa izango da.

Azokako espazio-eskaera handia da eta azoka-espazioaren antolaketan berrikuntza progresiboak ematen ari dira. Hori dela eta, standen banaketak aldaketa batzuk izan ditzake aurreko deialdiekin alderatuta, eta aurreko edizioetan parte hartu duten erakusketariei ezin zaie aurreko edizioetan esleitu zaizkien espazio berak edukitzea bermatu. Esleipen bat egingo da, aurretik edukitako kokalekua kontutan hartuz eta beti ere parte hartzeko eskaera-dokumentu guztiak epearen barruan aurkeztu badira.

Dekorazioa eta enpresen irudia sortu dugu eta aurrealdeko stand guztietan enpresaren logoa jarri da . Stand guztiek mahai 1, 3 aulki, 2 spot lights eta ur-hartune 1 izango dituzte.

Pabiloiko bilera-gela enpresa parte-hartzaileen eskura jarriko da, hitzaldi teknikoak egiteko edo ikastaroak emateko. Aretoa enpresen eskaeren arabera esleituiko da.

Kredentzialak kontratatutako metroen arabera emango dira: gehienez 18 m², 3 kredentzial; 18-36 m², 4 kredentzial; 36-72 m², 5 kredentzial; eta 72 m² baino gehiago, 6 kredentzial.

- **Partaidetza-kostuak.-**

12 m²-ko standaren espazioa eta antolaketa-kostuak: 2.500,00 Euro + BEZ.

Kontratutako hurrengo metroak: 190,00 Euro m² + BEZ

Prezio horretan, aipatutako espazioa eta oinarritzko dekorazioa sartzen dira. Material gehigarria ez da kuota honetan sartzen, urrian egingo den fakturazio gehigarrian baizik.

- **Produktuen Laginak garraiatzea.-**

Enpresa parte-hartzaileei azokara produktu-laginak bidaltzeko alternatiba egokiak eskainiko zaizkie. Enpresek zuzenean ordainduko diote esleitutako garraio enpresari garraioaren kostua.

- **Bidaia eta egonaldia.-**

Enpresek bidaia eta egonaldia zuzenean kontratatu beharko dituzte.

LAGUNTZAK

Jarduera honetan parte hartzen duten enpresek finantza-laguntza eskatu ahal izango dute Eusko Jaurlaritzak ezarritako laguntza-programen bidez. Nazioartekotzeko Euskal Agentzia – Basque Trade & Investment. Zabaldu programa: <https://www.spri.eus/eu/laguntzak/zabaldu/>

ESKAERAK

Azoka honetako Euskal Pabiloian izena emateko, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Izena emateko fitxa, behar bezala beteta
- transferentziaren egiaztagiria:

Kutxabank: ES82 2095 5206 04 1061020862 Swift BASKES2BXX,

Banco Sabadell: ES04 0081 5182 58 0001260929 Swift: BSABESBBXXX

Kontzeptua: «FIHAV 2022-Enpresaren izena» eskatutako espazioaren %100 + %10 BEZ

ESKAERA EGITEKO EPEA

Eskaera egiteko epea 2022ko ekainaren 13an amaituko da.

Dagokion ordainketarekin batera aurkeztu ez diren eskabideak ez dira izapidetuko. Ondoren, faktura enpresari bidaliko zaio.

INFORMAZIOA

Gipuzkoako Bazkunea (Nazioartekotze Saila) - Amaia Vaqueriza, Tel: 943 000 295

E-maila: avaqueriza@camaragipuzkoa.com